

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK



LAHEI diskoteka aurrera eramateko, **garrantzitsua da gure enpresaren promozioa**. Horretarako, **Banaketa eta komunikazio kanalak** behar ditugu.

Lehenik eta behin, sare sozialetan aktibo egongo gara; instagramen, twitterren, tiktoken eta facebooken. Egingo ditugun ekintza guztien informazio sare sozial hauen baitan adieraziko dugu.

Honela, gure bezeroak sare sozialetan harpidetuta baldin badaude, informazio guztia eskuragarri edukiko dute, hala nola, ekintza berriak, jaialdi garrantzitsuak, dj ezberdinak, ... informazio guztia momentuan eta eskura izango dute. Gure kontuen izena [@lahei48992](#) izango da sare sozial guztietan.

Horretaz gain gure [webgunea](#) link zuzena izango dute gure sare sozial guztiek, hortik gure webgunera heltzeko. Webgunean hainbat gauza ezberdin egongo dira, dj ezberdinen datak, jaialdien datak, prezio bereziak, deskontuak, bonoak...

Gainera, gure bezeroak, gurekin kontaktuan egon daitezke sare sozialen bidez edota telefono fijo baten bidez, haien galderak edo eskaerak asetzeko, erantzuteko eta argitzeko. Laguntza hau guk eramango dugu, hau da, ez da ez makina bat izango ezta kanpoko beste pertsona baten zeregina izango. Enpresa osatzen dugun langileen esku geratuko da ardura hori, batez ere, Irati arduratuko da, publizitatean eta sarrerren salmentan egongo delako, honekin batera, bezeroekin harreman zuzena eukiko baitu.

Honekin batera, kalean ere publizitatea behar izango dugu, sare sozialekin aritzen ez diren bezeroentzako. Honetarako, udaletxe ezberdinetako baimena izan beharko dugu kartel publizitarioak Uribe Kostako herri ezberdinetan jartzeko.

Azkenik, kanpoko jendearen laguntza ere beharko dugu gure diskoteka ezagunagoa izateko. Bertan sartzeko sarrerak salduko ditugu diskotekan bertan, baina lehenago sarrera erosi nahi izatekotan, "RRPP"-ak (harreman publikoak) kontratatuko ditugu, sarrera horiek lehenago saltzeko. Hauek, gazteak izango dira, eta diru baten truke egingo dute lan hau. Honela, hainbat gazte koadrilei nahi dugun mezua helduko zaie.

Salmenta aldetik, gu geu izango gara funtzesko kanala. Hau da, sarrerak, edariak, edota gure diskotekako beste hainbat zerbitzuren saltzailea, enpresa bera izango da. Garrantzi handiagoa hartuko duena, sarrerak dira, horregatik, webguneko atal nagusia, hauen salmenta edo erosketa izango da.

Honekin, bezeroen eskuragarritasuna bilatzen dugu, dena ahalik eta errezen eta eskuragarrien eduki dezaten.

Beste alde batetik, normala den moduan, diskotekaren baitan kontsumitzen diren produktuak, edariak, arropa... bertan dagoen diskoteka arduradunak salduko ditu, dena enpresaren baitan. Hau horrela izanik, gure hornitzaileekin izango dugun harremana zuzena eta gertukoia izango dela ondorioztatzen dugu (Funtsezko elkarteak atalean azaldu dugun bezala).

Beste aukera posible bat, gure banaketa-kanala guztiz aldatzen duena, merchandisina izango da. Gure diskoteka propioaren arropa izatekotan, diskotekan, beste supermerkatu edota dendetan salgai egongo da, hala nola, eroski, alboko arropa denda eta hurbileko dendatxo txikietan. Horrek esan nahi du, banaketa kanala beste bat izango dela, kasu honetan, supermerkatuak edo dendak (baina merchandisina soilik banatuko da kasu hauetan). Webgunean ere izango dira gure produktuak eskuragarri, deskontuak edo produktu berrien jakinarazpenekin batera.

Aipatu dugun moduan, gure diskoteka leku anitza izango da, hainbat ekintza ezberdin egiteko erabili daiteke. Horretarako, diskoteka alokatzeko aukera jarriko dugu. Edonork alokatu dezake gure lokala. Esate baterako, Uribe Kostako Institutu ezberdinekin harremana izango dugu haien kurtso amaierako jaialdiak bertan antolatzeko, horretarako, zuzendaritzekin harremanetan jarriko gara gmaileen bidez haiek eguna aukeratzeko eta zer nolako apainketa nahi duten. Informazio guztia emango zaie mezuen bidez eta prezioa bertan jarriko diegu, hemezortzi urtetik gorakoak ez diren nerabeentzat alkoholik gabeko festa bat prestatuko dugu, eta adin nagusikoak badira, institutuaren erabakiaren arabera izango da alkohola jartzea ala ez. Era honetako jaiak prest egongo dira bertaratu nahi duten irakasleek inolako arazorik gabe joan ahal izateko.




Gure diskoteka lokal publiko bat da, batez ere gaueko ordutegiarekin, musika grabatua edo zuzenean entzuteko, dantzatzeko eta edariak kontsumitzeko. Night club, boite, disco, etab. ere esaten zaio.

/ Multimedia Production

/ Photography

/ Creative Design



A bar that thinks of you

Non gaude kokatuta?

Gure diskoteka, getxoko kirol-portuan kokatuta dago, Neguriko metrotik 800 metrora. Bestetik, autobus geltoki bat dago lokaletik 50 metrotara. Gure kalea: Muelle de Arriluce 1, 1º izquierda.



[Sarrerak erosteko klikatu hemen: https://www.taquilla.com/conciertos/discotecas](https://www.taquilla.com/conciertos/discotecas)



Sarrerak beste modu batean erosteko, gure RPPekin harremanetan jar zaitzekete eta instagram bidez haiekin geratu sarrerak aurrez aurre erosteko. 3RPP izango ditugu eta beraiekin harremanetan jartzeko instagramen bilatu RPP-lahei eta haien instagramak agertuko zaizkizue.

[@lahei48992](#)